

2010eko hirugarren hiruhilekoan, ezkontza zibilen proportzioa handiagoa izan zen aurreko urteko aldi berean baino

2010eko uztail, abuztu eta irailean 2.704 ezkontza izan ziren, aurreko urteko aldi berean baino %5,4 gutxiago

2010eko hirugarren hiruhilekoan, ezkontzen %55,8 zibilak izan ziren; 2009ko aldi berean baino 4 puntu gehiago, Eustaten datuen arabera. Ehuneko hau 2010eko bigarren hiru hilekokoaren azpitik dago, orduan ezkontza zibilak %65,1 izan baitziren.

2010eko uztail, abuztu eta irailean 2.704 ezkontza egin ziren Euskal AEn, aurreko urteko hiruhileko berean baino %5,4 gutxiago, Eustaten datuen arabera. Arabarrek 347 ezkontza egin zituzten, gipuzkoarrek 825 eta bizkaitarrek 1.454. Euskal AEtik kanpo biziko direnen kasuan, ezkontzak 78 izan ziren.

Uztaila da , oraindik ere, ezkontzeko hilik gustukoena

Ezkontzarik gehien (1.354), uztailan; ondoren (965), irailean. Bestalde, aurrekoetan bezala, ezkontzarik gutxien (385) izandako udako hila abuztua izan zen, aurreko urteko hil beraren aldean %26 gutxiago.

2010eko hirugarren hiruhileko horretako 2.704 ezkontzetan, bizilekua Euskal AEn duten 2.619 gizonetzko eta 2.656 emakumezko ezkondu ziren. Horietatik 2.399 senarrentzat (%91,6), lehen ezkontza izan zen; 10 alargun eta 210 dibortziatu berriro ezkondu ziren. Emakumeen lehenengo ezkontzen ehunekoa gizonenaren antzekoa izan zen: aurretik ezkondu gabeko emakumeak 2.451 (%92,3) izan ziren; alargunak, 9; eta dibortziatuak, 196.

Ezkontideek eztei-egunean zuten adinari erreparatuta, senarren artean %79,8k 30 urtetik gora zituzten; emazteen artean, berriz, %65,4k. Aurreko urteko aldi beraren aldean, proportzioa bi sexuetan handitu da, baina emakumeen artean areago: 2009an %62,1ek zeuzkaten 30 urte baino gehiago, gizonen artean %78,4 zelarik.


Emazte berrien %7,7, atzerritarrak

2010eko udan zehar egindako ezkontzetan, gizonen %5,1 eta emakumeen %7,7 ez ziren espainiarrak.

	2010ko 3. hiruhilekoa		Aurreko hiruhilekoa (2010ko 2. hiruhilekoa)		Aurreko urteko hiruh. bera (2009ko 3. hiruhilekoa)	
	kop.	%	kop.	%	kop.	%
EZKONTZAK	2.704	100,0	2.553	100,0	2.858	100,0
Kanonikoak	1.195	44,2	891	34,9	1.376	48,1
Zibilak	1.509	55,8	1.662	65,1	1.482	51,9
SENARGAIK	2.619	100,0	2.477	100,0	2.765	100,0
Ezkongabeak	2.399	91,6	2.236	90,3	2.555	92,4
Alargunak	10	0,4	14	0,6	6	0,2
Dibortziatuak	210	8,0	227	9,2	204	7,4
EMAZTEGAIAK	2.656	100,0	2.496	100,0	2.788	100,0
Ezkongabeak	2.451	92,3	2.277	91,2	2.582	92,6
Alargunak	9	0,3	5	0,2	7	0,3
Dibortziatuak	196	7,4	214	8,6	199	7,1

Iturria: EUSTAT. Euskal AEko Ezkontzen Estatistika

1. grafikoa: Ezkontzen hilez hileko mugimendua oinarria (100= b.b.)



Iturria: EUSTAT. Euskal AEko Ezkontzen Estatistika

Argibide gehiago:

[Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxa: +34-945-01 75 01 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Martín González Hernández

Tel.: +34-945-01 75 49 Faxa: +34-945-01 75 01

Euskal AEko EZKONTZEN ESTATISTIKARI buruzko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko EZKONTZEN ESTATISTIKARI buruzko datu-bankua